

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal ekimenak 24 beka eskainiko dizkie langabezian dauden eskualdeko gazteei

- Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo eta Zeberioko Udaletako gazte-arloek abiarazitako proiektua da.
- Beka hauei esker, 18 eta 25 urte bitarteko gazteek lanekoak ez diren praktika ordainduak egin ahal izango dituzte 6 hilabetez Nerbioi Ibaizabaleko enpresetan.
- Dagoeneko eskualdeko 46 enpresak eta 160 gaztek baino gehiagok agertu dute programa honetan parte hartzeko interesa.

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal proiektuak 24 beka eskainiko ditu 2023an, eskualdeko gazteek sei hilabetez lanekoak ez diren praktikak egiteko aukera izan dezaten. Helburua pertsona hauen enplegarritasuna hobetu eta laneratzea sustatzea da, beren lanbide-heziketarekin edo prestakuntza akademikoarekin lotuta dauden eskualdeko enpresetan esperientzia hartuz.

Ekimen hau Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo eta Zeberioko udaletako gazte-arloek bultzatu dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

Ordaindutako praktika hauek egin nahi dituzten gazteek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Nerbioi-ibaizabal eskualdeko udalerriren batean erroldatuta egotea.
- Lanbiden enplegu-eskatzaile bezala inskribatuta egotea.
- Unibertsitate-titulua, erdi-mailako nahiz goi-mailako prestakuntza-zikloa, 3. mailako doktoregoa edo profesionaltasun-ziurtagiria izatea edota azken urteko ikaslea izatea.
- Jasotako prestakuntzarekin lan-esperientziarik ez izatea, edo lan-esperientzia hiru hilabetetik beherakoa izatea.
- 18-25 urte izatea.



Bekek sei hilabeteko iraupena izango dute, eta hilean 828 € gordin jasoko dituzte egunean 6 orduz lan egitearen truke (PFEZaren atxikipena % 2koa da).

Irekita dago jadanik programa honetan parte hartzeko eskaera-epea. Informazio gehiago lortu eta beken tramitazioa eskatzeko, harremanetan jarri behar da eskualdeko udaletako gazteria zerbitzuekin edo Novia Salcedo Fundazioarekin.

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal ekimena Bizkaiko Foru Aldundiaren, eskualdeko udalen eta enpresen arteko lankidetzaren publiko-privatuaren emaitza da, eta honen helburu nagusia gazteen enplegarritasuna hobetzea da.

Urtez urte, partaidetza sendotuz eta handituz joan da programa honen, hitzartutako enpresen kopuruan zein lan-merkatuan sartzea erraztuko dieten lan munduko lehen esperientzia izateko interesa duten gazteen kopuruan. Orain arte, 46 enpresa daude izena emanda, eta dagoeneko eskualdeko 160 gaztek baino gehiagok agertu dute programa honetan parte hartzeko interesa.

INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.nerbioibaizabalgaztedi.eus/eu/contacto/>



Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal ofrece 24 becas a personas jóvenes desempleadas de la comarca

- Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal es un proyecto puesto en marcha por la Diputación Foral de Bizkaia y las áreas de juventud de los ayuntamientos de Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo y Zeberio.
- Estas becas permiten que personas jóvenes de entre 18 y 25 años desarrollen prácticas remuneradas no laborales en empresas de Nerbioi Ibaizabal durante 6 meses.
- 46 empresas y más de 160 personas jóvenes de la comarca ya han mostrado interés en participar en el programa.

El proyecto Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal ofrece en este año 2023 un total de 24 becas para la realización de prácticas no laborales, destinadas a personas jóvenes de la comarca, con una duración de seis meses. El objetivo es mejorar la empleabilidad y fomentar la inserción laboral de estas personas, adquiriendo experiencia en empresas de la zona relacionadas con su formación profesional o académica.

Esta iniciativa está impulsada por las áreas de juventud de los ayuntamientos de Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo y Zeberio, así como de la Diputación Foral de Bizkaia.

Podrán acceder a estas prácticas remuneradas las personas jóvenes que cumplan los siguientes requisitos:

- Estar empadronada en alguno de los municipios de la comarca de Nerbioi-ibaizabal.
- Estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide.
- Estar en posesión del título universitario, ciclo formativo de grado medio o superior, doctorados o certificado de profesionalidad de nivel 3 y estudiantes de último año.
- No tener experiencia laboral con la formación recibida o menos de tres meses.



- Tener entre 18 y 25 años.

Las becas tendrán una duración de seis meses y a cambio de 6 horas diarias de trabajo percibirán 828 € brutos mensuales (retención del 2% del IRPF).

El plazo de solicitud para participar en este programa ya está abierto. Para obtener más información y solicitar la tramitación de las becas, se puede contactar con los servicios de juventud de los ayuntamientos de la comarca o con la Fundación Novia Salcedo.

Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal

La iniciativa Udal Gaztedi Nerbioi Ibaizabal es fruto de la colaboración público-privada entre la Diputación Foral de Bizkaia, los ayuntamientos y empresas de la comarca, y tiene como objetivo principal mejorar la empleabilidad de las personas jóvenes.

Año tras año este programa se va consolidando e incrementando su participación, tanto en el número de empresas convenidas como en jóvenes con interés en la adquisición de una primera experiencia laboral que les posibilite un mejor acceso al mercado laboral. Hasta el momento están inscritas un total de 46 empresas, y más de 160 personas jóvenes de la comarca ya han mostrado interés en participar en el programa.

MÁS INFORMACIÓN

<https://www.nerbioibaizabalgaztedi.eus/contacto/>

